

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 27/2017 Foru Dekretua, maiatzaren 9koa, aldatzen dituen pertsona fisikoen errentaren gaineko eta sozietateen gaineko zergaren araudiak, Kontseiluaren martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko argibideak emateko betebeharrak arautzen duena, eta urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, zergadunen erroldari eta horren inguruko betebeharrak buruzkoa

Foru dekretu honek pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren eta sozietateen gaineko zergaren arautegiak aldatzen ditu, abenduaren 23ko 19/2016 Foru Arau berrira, zerga sistemako hainbat foru arau aldatzen dituen era, egokitzeko eta hori garatzeko behar diren aldaketak haie-tan sartzeko.

Bestalde, urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituen, aldatzen du txikizkako salmentaren gaineko zergaren erregist-roaren aipamenak ezabatzeke.

Azkenik, martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragike-tei buruzko argibideak emateko betebeharrak arautzen duena, aldatzen du, elkarren laguntzari lotutako betebeharrak sartzeko.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia aldatzea

Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia onartzen duena, aldatzen da; hona aldaketak:

Bat. 7. artikuluko lehen paragrafoa aldatzen da, eta honela geratzen da:

“Zergaren Foru Arauko 9. artikuluko 5. zenbakian ezarritako salbuespena aplikatzeko ezinbes-tekoa da langileak inolako loturik ez edukitzea enpresarekin. Kontrakoa frogatu ezik, lotura ho-rrek irauten duela ulertuko da irazpena edo utzaraztea gertatu eta hiru urteren buruan langileak berriz ere ematen baditu zerbitzuak enpresa berean edo horrekin lotutako beste enpresa batean, Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauaren 42. artikuluko 3. zenbakian ezarritako terminoetan.”

Bi. 8. bis artikulua sartzeko, ondorioak 2015eko urtarrilaren 1az geroztik izango dituen, honela idatzita:

“8. bis artikulua. Foru Arauaren 9. artikuluko 12. zenbakian aipatutakoen xede bera duten prestazioen salbuespena.

Zergaren Foru Arauaren 9. artikuluko 12. zenbakiko azken paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, salbuetsita egongo dira jardunaldi murriztua duten eta hark dirauen denbo-ran ordainsari osoak jasotzeko eskubidea daukaten funtzionario publikoek jasotzen dituzten ordainsariak salbuetsita egongo dira, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren legearen testu bategina onartzen duenak, 49. artikuluko e) letran xedatutakoa aplikatuz.

Salbuetsitako kopuruaren gehieneko muga minbiziak edo beste gaixotasun larri batek eragindako adingabeak zaintzagarik kasuan kasu legokiokoen prestazio ekonomikoa izango da, urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bategina onartzen duenak, II. tituluko x. kapituluaren xedatutakoaren arabera.

Hiru. 12. artikuluko 1. zenbakiko k) letra aldatzen da eta honela geratzen da:

“k) Arabako Nekazaritza Sektorerako Laguntzen Planaren testu bategina eta apirilaren 12ko 30/2016 Foru Dekretuan araututako nekazari gazteek enpresak sortzeko laguntzak onartzen dituen martxoaren 20ko 21/2012 Foru Dekretuaren 20. 26. artikulua.”

Lau. 33. artikuluko 1. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“1. Ardogintzaren eta nekazaritza, abeltzaintza edo arrantzaren etekin garbia zuzeneko zenbatespeneko metodoaren modalitate erraztuan zehazteko honako erregelak hauek aplikatuko dira:

a) Sozietateen gaineko zergaren Foru Arauan eta Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren Foru Arauaren 27. artikuluan ezarritako arauetan xedatutakoarekin bat etorritik kalifikatu eta zenbatuko dira sarrerak eta gastuak, hauek izan ezik: narriaduraren ondoriozko galerak, amortizazioak, zergaren Foru Arauaren 27. artikuluko 5. arauaren bigarren paragrafoaren a) letran eta hirugarren paragrafoaren a) letran aipatzen diren errentamendu, lagapen eta balio galeren ondoriozko gastuak, ez eta jarduerari atxikitako ondare elementuen ondoriozko irabaziak eta galerak ere.

b) Aurreko idatz zatian aipatutako sarreraren eta gastuen arteko aldea kalkulatu da.

c) Aurreko b) letran xedatutakotik ateratzen den kopurua ehuneko 35 gutxituko da, zergaren Foru Arauaren 27. artikuluko 5. arauaren bigarren paragrafoaren a) letran eta hirugarren paragrafoaren a) letran aipatzen diren narriaduraren ondoriozko galeren, amortizazioen eta errentamendu, lagapen eta balio galeren ondoriozko gastuengatik eta justifikatzeko zailak diren gastuengatik.

d) Aurreko c) letran xedatutakoaren arabera kalkulatu den zenbatekoari jarduerari atxikitako ondare elementuen ondoriozko irabaziak edo galerak gehitu edo kendu behar zaizkio, kasuan kasukoa, zergaren Foru Arauko 25. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoarekin bat etorritik.”

Bost. 37. artikuluko 2. zenbakiko a) letra aldatu da eta honela geratu da:

“a) Higiezin dagokienez, urtean ordaindutako eskuraketa kostuaren ehuneko 3 baino gehiago ez badira, lurzuaren kostua zenbatu gabe.

Lurzuaren balioa zenbatekoa den jakin ezean, honela kalkulatu behar da: ordaindutako eskuraketa-prezioa lurzuaren eta eraikuntzaren eskuraketa-urteko katastro-balioen artean laindu behar da.”

Sei. 42. artikuluko 2. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“2. Hala ere, hiri errentamenduei buruzko azaroaren 24ko 29/1994 Legeko 2. artikulua aipatutako etxebizitzaren gaineko azpierrete eratorritako errentamenduak direnean, errentamendu garbia lortzeko kengarriak izango dira azpierreteak errentamendu kontzeptuan ordaindutako zenbatekoak, azpialokatutako elementuaren zati proportzionalan eta, horrez gainera, azpialokatutako higiezin bakoitzeko lortutako etekin guztien eta gastu kengarri gisa zenba daitekeen zenbatekoaren arteko aldeari %20ko hoberia aplikatuko zaio.”

Zazpi. 45. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“45 artikulua. Negoziatzeko onartutako baloreek sortutako ondare-irabaziak zergapetzeko aukerako araubidea.

Zergaren Foru Arauaren hogeigarren xedapen gehigarriak aipatzen duen karga berezia aplikatzeko, eskualdaketa balio izango da foru arau horren 47.1.a) artikuluan xedatutako aplikatzearen ondorio den emaitza.

Zerga berezia aplikatzea hautatzen bada, zergadunak zergaldi batean egin dituen 47.1.a) artikuluko balioen kostu bidezko eskualdaketa guztiei aplikatuko zaie.”

Zortzi. 46. bis artikulua berria sartzen da, ondorioak 2016ko urtarrilaren 1az geroztik izango dituenak, honela idatzita:

“46. bis artikulua. Salbuespena 65 urtetik gorako zergadunek euren alde ziurtatutako biziarteko errenta diren ondare elementuen eskualdaketan.

1. Zergaren Foru Arauaren 42. artikuluko f) letran xedatutakoaren ondorioetarako, salbuetsita geratuko dira 65 urtetik gorako zergadunek ondare elementuak eskualdatzean agertzen diren ondare irabaziaz, eskualdaketaren bidez eskuratutako zenbateko osoa haien alde ziurtatutako biziarteko errenta bat eratzeko erabiltzen bada, artikulua honetan ezarritako baldintzetan.

2. Biziarteko errenta sei hilabeteko epean eratu beharko da, ondare elementuaren transmisio datatik.

Hala ere, ondare irabazia atxikipenaren mende badago eta atxikipeneko zenbatekoan murriztutako transmisio balio osoa aipatutako sei hileko epean biziarteko errenta eratzera bideratzen bada, atxikipeneko zenbatekoa biziarteko errenta eratzera bideratzeko epea luzatu egiten da, harik eta transmisioa egin den ekitaldiaren hurrengoa amaitu arte.

3. Salbuespena aplikatzeko baldintza hauek ere bete beharko dira:

a) Biziarteko errentaren kontratua zergadunak (onuraduna izango da) eta entitate aseguratzaile batek sinatu beharko dute.

Biziarteko errenta kontratuetan errenta eratu ondoren kontratatzailea hilez gero zer egin behar den ezar daiteke: errenta berreskuratzeko mekanismoak, prestazioaldiak edo kontraseguru formulak.

b) Biziarteko errentak urtebeteko edo gutxiagoko periodikotasuna izan beharko du, eratzten denetik urtebeteko epean hasi beharko da jasotzen, eta errenten urteko zenbatekoa ezingo da ehuneko 5 baino gehiago murriztu aurreko urtearekin alderatuta.

c) Zergadunak entitate aseguratzaileari jakinarazi beharko dio kontratatzen den biziarteko errentak ondare elementuen transmisioan lortutako zenbatekoaren berrinbertsioa eratzten duela, artikulua honetan aurreikusitako salbuespena aplikatze aldera.

4. Biziarteko errentak eratzeko berrinbertitzean salbuespena aplikatzeko eskubidea emango duen gehienezko zenbatekoa guztira 240.000 eurokoa izango da.

Berrinbertitutako zenbatekoa txikiagoa bada besterentzean jasotako zenbateko osoa baino, lortutako ondare-irabazian berrinbertitutako zenbatekoari dagokion zati proportzionala baino ez da utziko zergapetu gabe.

Transmisioaren zenbatekoa biziarteko errenta batean berrinbertitzearen ondorioz 240.000 euroko kopurua gainditzen bada, aurreko berrinbertsioak aintzat hartuta, soilik 240.000 eta aurreko berrinbertsioen zenbatekoaren arteko aldea hartuko da berrinbertsio gisa.

Artikulu honetan xedatutakoaren arabera, berrinbertsioa ez bada egiten besterentzea egiten den urte berean, zergadunak ondare-irabazia lortzen duen ekitaldiko autolikidazioan adierazi beharko du berrinbertsioa aurretik adierazitako baldintza eta epeetan egiteko asmoa daukala.

5. Artikulu honetan ezarritako edozein baldintza ez bada betetzen, edo eraturako biziarteko errentatik eratorritako eskubide ekonomikoak erabat edo partzialki aurreratuz gero, kasuan kasuko ondare irabazien tasaren mende egotea eragingo du.

Hori gertatzen bada, zergadunak salbuetsita ez dagoen ondare-irabazia irabazi hori lortu duen urteari egotziko eta autolikidazio osagarria egingo du; autolikidazio osagarri horretan bidezko berandutza-korrituak sartuko ditu.

Ez-betetzea izan den egunaren eta ez-betetze hori gertatzen den zergaldiari dagokion autolikidazioaren arauzko epea amaitu arteko epean aurkeztuko da autolikidazio osagarria.”

Bederatzi. 60. artikuluko 2. idatz zatiko lehenengo paragrafoa aldatu eta honela geratu da:

“2. Zergaren Foru Arauko 82. artikuluan aipatzen den mendekotasuna onartuko zaie otsailaren 11ko 174/2011 Errege Dekretuaren bidez desgaitasuna onartuta daukaten pertsonen (horren bidez mendekotasunean dauden pertsonen autonomia pertsonala eta arreta sustatzeko 39/2006 Legeak ezarritako mendekotasuna baloratzeko baremoa onetsi da).”

Hamar. 79. artikuluko 2. zenbakiko f) letra aldatu da eta honela geratu da:

“f) Europar Batasuneko beste estatu batean egoiliartutako pentsio funtsak Espainiako legeriari lotuta dauden laneko pentsio planak garatzen baditu, laneko pentsio funtsen jarduerak eta gainikuspena arautzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2003ko ekainaren 3ko 2003/41/EE Zuzentarauan ezarritakoaren arabera, entitate kudeatzaileek Espainian egiten dituzten eragiketei dagokienez atxikipena egin beharko dute.”

Hamaika. 2. artikuluko 2. zenbakiko e) letra aldatu da eta honela geratu da:

“e) Zergaren Foru Arauaren 19. eta 20. artikuluetan, 25. artikuluko 4. zenbakian, 30. artikuluko 3. zenbakian, 39. artikuluko 3. zenbakian edo hogeita batgarren xedapen gehigarrian aurreikusitakoaren arabera aplikatutako integrazio ehunekoak.”

Hamabi. 2017ko urtarrilaren 1az geroztik aurkeztu behar diren informazio aitortpenetarako ondorioak izanik, 123. artikuluko egungo 15. zenbakia 17. zenbakia izango da eta 123. artikuluari 15. eta 16. zenbakiak eransten zaizkio, honela idatzita:

“15. Arautegi honen 46. bis artikulua aipatu biziarteko errentak saltzen dituzten aseguru erakundeek hurrengo urteko urtarrilaren lehenengo hogeita hamar egun naturaletan informazio aitortpen bat aurkeztu beharko dute. Bertan, euren identifikazio datuez gainera, biziarteko errenten titularrei buruzko informazio hau jasoko dute:

a) Izena, abizenak eta identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Biziarteko errentaren identifikazioa, eratzeko data eta jarritako prima.

c) Eratatutako biziarteko errentatik datozen eskubide ekonomikoak osorik edo partzialki aurreratuz gero, aurreratzeko data.

16. Erakundeek Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004ko apirilaren 21eko 2004/39/EE Zuzentarauan (sozietateen edo erakundeen funts propioetako partaidetza ordezkatzeko finantza-tresnen merkaturerako buruzko Zuzentzaraua) definitutako balore-merkatu arautuetako batean negoziatzera onartzen ez diren baloreei dagozkien ekarpenak edo jaulkipen-sariaren banaketaren itzulita kapitala murrizteko eragiketak egiten dituzten erakundeek, arautegiaren 78. artikuluko i) letran xedatutakoaren arabera, atxikipenei lotuta egin gabe, pertsona fisikoen alde egindako eragiketei buruzko informazio aitortpena aurkeztu beharko dute, datu hauek jasoz:

a) Eragiketa horien ondorioz edozein zenbaterako, ondasunak edo eskubideak jasotzen dituzten bazkide edo partaideen informazio osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta erakunde aitortzen duten partaidetza ehunekoa barne.

b) Murrizketak eragindako edo, jaulkipen-primaren banaketaren kasuan, aitortutako pertsonak dauzkan akzioen edo partaidetzen identifikazio osoa, haien mota, zenbakia, balio nominala eta, kasuan kasu, identifikazio kodea barne.

c) Data eta eragiketan jasotako ondasunak, eskubideak edo zenbaterako.

d) Kapital murrizketak eragindako edo jaulkipen-prima banatzeko kasuan aitortutako pertsonak dauzkan akzio edo partaidetzei dagozkien funts propioen zenbaterako, kapital murrizketa edo jaulkipen-primaren banaketa egunaren aurretik itxitako azken ekitaldiari dagokiona, eragiketa egunaren aurretik, funts propio horietan sartutako erreserbatatik etorritako banatutako etekinaren zenbaterako eta funts propio horietan legez eskuraezin diren erreserben zenbaterako kenduta.

Ekarpenak itzulita edo jaulkipen-prima banatuta kapitala murrizteko eragiketak egiten dituzten erakundeek, ordea, ez dute zenbaki honek aipatutako informazio aitortpena aurkeztu beharko, abenduaren 23ko 111/2008 Foru Dekretuak, eragiketa horietan finantza kontu, eragiketa eta aktiboen eta atzerrian kokatutako ondasunen eta eskubideen berri eman beharra arautzen duenak, 7. artikuluan aipatzen duen informazio aitortpena aurkeztu behar duten subjektuen batek esku hartzen badu.”

Hamahiru. Edukirik gabe uzten da hirugarren xedapen iragankorra.

Bigarrena. Sozietateen gaineko zergaren arautegia aldatzea

Abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuan, sozietateen gaineko zergaren arautegia onartzen duenean, aldaketak egin dira. Aldaketa horiek 2016eko urtarrilaren 1az geroztik hasitako zergaldietan izango dituzte ondorioak. Hona aldaketa horiek:

Bat. 41. artikuluko 1. eta 2. zenbakiak aldatu dira eta honela geratu dira:

“1. Zergaren Foru Arauko VI. tituluko III. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikatu ahal zaien Espainiako eta Europako interes ekonomikoko elkartzeek zergaren autolikidazioarekin batera zergaldiko azken egunean Espainiako lurraldeko egoiliar izan diren bazkideen zerranda aurkeztu behar dute, edo bazkidetasunari datxezkion eskubide ekonomikoak dituzten pertsona edo erakundeen zerranda. Bertan datu hauek agertu behar dira:

a) Bazkideen edota bazkidetzari lotutako eskubideak dauzkaten pertsona edo erakundeen identifikazioa, zerga egoitza eta partaidetza ehunekoa.

Ildo horretatik, bazkideak banaka identifikatu beharko dituzte haien ekarpenak kontabilitate irizpideen arabera ezaugarri bereziak dituzten ondare tresnatzat jo behar badira.

b) Guztira egotzi beharreko zenbatekoak ondoko kontzeptu hauek kontuan hartuta:

1. Kontabilitateko emaitza.

2. Zerga oinarria.

3. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkariaren oinarria, errentak sortu dituen erakundearen mota eta beraren partaidetza ehunekoa.

4. Zergaren Foru Arauko V. tituluko III. kapituluan ezarritako kenkariaren oinarria eta interes ekonomikoko elkartzei aplikatu ahal zaizkien gainerako guztiena.

5. Interes ekonomikoko elkartzearen atxikipenak eta konturako sarrerak.

c) Bazkideek taldearen kapitalari egindako ekarpenak, ekarpen horiek kontabilitate irizpideen arabera ezaugarri bereziak dituzten ondare tresnatzat jo behar badira.

d) Erreserben kargura banatutako dibidenduak eta mozkinetako partaidetzak, betiere adierazita sozietateari zer ekitalditan ez zitzaion erregimen orokorra aplikagarri.

2. Interes ekonomikoko elkartzeek euren bazkideei edo bazkidetzari datxezkion eskubide ekonomikoak dauzkaten pertsona edo erakundeei jakinarazi beharko dizkiete egotzi beharreko guztirako kopuruak eta bakoitzari aurreko idatz zatiko b) letran ezarritako kontzeptuen arabera egotziko zaiona, baldin eta zerga honen edo pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arauen arabera egotzi ahal bazaizkie.

Halaber, kapitalari egindako ekarpenen zenbatekoaren berri eman beharko diete bazkideei haien ekarpenak kontabilitate irizpideen arabera ezaugarri bereziak dituzten ondare tresnatzat jo behar badira.”

Bi. 41. bis artikulua eransten da, honela idatzita:

“41. bis artikulua. Ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideei zenbatekoak egotzeko muga.

1. Zergaren Foru Arauaren 73. artikuluko 1. zenbakiko b) letran muga bat ezartzen da ekonomia-intereseko elkartzeetako bazkideentzat, bazkideok elkartzeari egindako ekarpenak kontabilitate-irizpideen arabera ezaugarri berezidun ondare-tresna gisa kalifikatu behar diren kasurako; bada, muga hori modu orokorrean aplikatuko da bazkideek elkartzean duten partaidetza mantentzen duten zergaldi guztietan.

2. Zergaldi batean zenbateko batzuk egotzi gabe geratu badira aurreko zenbakian aipatutako mugaren ondorioz, egotzi gabeko horiek hurrengo zergaldietan egotzi ahal izango dira, zergaldi bakoitzean errespetatu beharreko muga errespetatuta betiere.”

Hirugarrena. Aldatzea urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretua, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituena

Aldaketa hauek egiten dira urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuan, Zergadunen Errolda eta horren inguruko betebeharrak arautzen dituenen:

Bat. 3. artikuluko 1. zenbakiko d) letra hutsik geratzen da.

Bi. 7. artikulua edukirik gabe uzten da.

Hiru. Edukirik gabe uzten dira 17. artikuluko 4. eta 5. zenbakiak.

Laugarrena. Martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretua, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko informazioa eman beharra arautzen duena, aldatzea

Aldaketa hauek sartzen dira martxoaren 3ko 21/2009 Foru Dekretuan, hirugarren pertsonekin egindako eragiketei buruzko informazioa eman beharra arautzen duenean.

Bat. 6. artikuluko 2. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“2. Jarduera ekonomikoren bat egiten duten zergapekoek, atxikipena edo konturako sarrera aplikatu behar zaien errentak edo etekinak ordaintzen dituztenek eta eragiketa ekonomikoetan, lanbide eragiketetan edo finantza eragiketetan parte hartzen duten edo bitartekari gisa aritzen direnek informazio orokorra eman behar dute berariazko arautegian, elkarren laguntzari buruzko araudian eta foru dekretu honetan ezartzen denarekin bat etorritz.”

Bi. 6. artikuluko 3. zenbakia aldatzen da, eta honela geratzen da:

“3. Informazioa eman beharra zergen arloko betebeharren inguruko denetariko datu, txosten, aurrekari eta frogagiriak, zerga ordainketan eragina izan dezaketenak, eta beste pertsona batzuekin izan dituzten harreman ekonomiko, profesional edo finantzarioen ondoriozko guztiak aurkezteko banako agindeiei erantzunez bete daiteke, nahiz eta zerga administrazioari aitorten bidez eman beharrik eduki ez. Honelako kasuetan, zergapekoek agindeian bertan ezarritako moduan eta epealdian aurkeztu behar dute eskatutako informazioa, foru dekretu honetan ezarritakoarekin bat etorritz Informazioa lortzeko jarduketak datuak dituzten pertsonaren edo erakundearen lokal, bulego edo egoitzetan egin daitezke edo zerga-ordainketan eragina duten datuak, txostenak, aurrekariak eta frogagiriak zerga administrazioari bidaltzeko agindeia eginez.

Informazioa eskuratzeko jarduerak administrazio organo jardulearen beraren ekimenez egin ahal izango dira, nahiz beste administrazio edo jurisdikzio organo batzuek eskatuta legez ezarritako lankidetzak kasuetan, nahiz beste Estatu edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuek eskatuta elkarren laguntzaren esparruan.

Hirugarrenei buruzko informazioa lortzeko banako agindeiak zergak ordainarazteko prozeduratan zein haietatik bereiz egin daitezke. Pertsona eta erakundeen zerga betebeharren inguruko agindeiek inolaz ere ez dute eragingo egiaztapen ez ikerketa prozedurarik.”

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, bertan ezarritako berariazko ondorio eta guzti.

Gasteiz, 2017ko maiatzaren 9a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTÍNEZ